

# noaua

**Igandeko Bizi Kalea,  
herriko dendariekin**

**Txalapartariak,  
dantzariak  
eta musikariak  
Jexux Artzeren omenez**



 **herritzartu** 

u s u r b i l  
maiatzak 7 herri galdeketa

## **Herritarren txanda da orain**



**USURBILGO  
LANBIDE  
ESKOLA**

CIFP USURBIL LHII

**Erdi eta goi mailako zikloak  
A, B eta D Ereduak**

**www.lhusurbil.eus**



**Maiatzak 6, 10 eta 13  
ATE IREKIAK**

\*Ordutegia: maiatzak 6 eta 13, larunbatak 11:00etan eta maiatzak 10, asteazkena 18:00etan

**943 36 46 00**



**FUNERARIA  
GONZALEZ  
EHORZTETXEA**

munalurra 8, USURBIL

**AURTEN HILERRI ZAHARRAREN ITXIERA:**

•GORPUZKI ETA HILOTZ-HONDARRAK ZUEN KABUZ  
KUDEATU NAHI BADITUZUE GUZTIAZ ARDURATZEN GARA:

•HILERRI ZAHARRETIK ATERA ETA ERRAUSTEAZ

•HILERRI ZAHARRETIK BERRIRA ERAMATEAZ

(IZAPIDE GUZTIAK EGITEN DITUGU: OSASUN SAILEKO BAIMENAK,  
UDALA, ERREGISTRO ZIBILA, OSASUN-GARRAIOA ERRAUTS-LABERA  
EDO BESTE HILERRI BATERA...)

OSASUN SAILAK BAIMENDUTAKO ENPRESA GARA (ERREG ZB: F18)

**943 36 21 63 (24H)**

AURREKONTU ETA INFORMAZIOA KONPROMISORIK GABE



• BEILATOKI GUZTIAK - ERRAUSKETAK

•EDOZEIN ASEGURU IZANDA (OCASO, SANTALUCIA...) HERIOTZA GERTATZEN BADA,  
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H. GUZTIAZ ARDURATZEN GARA

**ORIANTE**

Institutua

LASARTE-ORIA

Bigarren Hezkuntza



LANDABERRI ERAIKINA

1. eta 2. DBH



LARREKOETXE ERAIKINA

3. eta 4. DBH

BATXILERRA

**2017-2018 IKASTURTEA  
ONARPENA BATXILERGOA**

Ikastetxean eskaerak:

2017ko maiatzaren 2tik 12ra arte

On-line:

2017ko maiatzaren 2tik 11ra arte

Info@oriarte.eus | Buenos Aires aldapa, 1 | 20160 LASARTE-ORIA | Tel.: 943372852 / 943372277

**www.oriarte.eus**

## Inkesta

## Zergatik hartu hitza maiatzaren 7an?

## Laida Gonzalez

Euskaldunok bozka eta ahotsa dugu, eta aukera on bat da guk nahi duguna aldarrikatzeko. Hitza hartzera animatu.



## Juanxo Roteta

Aukeratzeko eskubidea dugu. Animatu maiatzaren 7an bozkatzera, erabakitze-ko eskubidea herritarrona baita.



## Amaia Añorga

Bozkatu, etorkizunean gure baitan dauden erabakiak guk hartu ahal izateko eta ez besteek inposaturiko bideak hartzeko.



## Nagore Lertzundi

Gure eskubidea delako nola nahi dugun bizi hemendik aurrera. Animatu denok!



## Jurgi Fuentes

Hitza hartzeak merezi du eta eskubidea dugu guk nahi dugun moduko herri bat egiteko. Parte hartu eta animatu bozkatzera.



## Oihana Irazusta

Herritarren hitza kontuan izateko. Behin aukeraziz aprotaxatu beharra dugulako. Animatu eta bozkatu.



## Jon Azpiazu

Beti dago arrazoren bat datoreen igandean parte hartzeko. Bozkatu. Animo Usurbil!



## Ane Azkonobieta

Gure onurarako hurrengo igandean bozkatu. Denon artean lortuko dugu zerbait.



## Garbiñe Zaldúa

Parte hartu, aukera dugulako erabakitze-ko zer izan nahi dugun. Beraz denok animatu eta bozkatu.



## Olatz Arregi

Guk erabaki behar dugu zer nahi dugun guretzat, ez beste batzuk. Animatu eta bozkatu.



## Laburrean

## 1971n jaiotakoek bazkaria

Maiatzaren 13an elkartuko dira Saizarren. 13:00erako finkatu dute biltzeko hitzordua, Bordatxo tabernan. "Animatu!", luzatu dute gonbita. Izen emateko epea maiatzaren 11ra arte, Kaffa kafetegian.

## Azken formazio saioa Zubietan

Zubietako Herri Eskolako Ikasleen Guraso Elkarteak antolaturiko formazio saioetan azkena, maiatzaren 9an, 14:30-16:30 artean Kaxkapen. Hizlaria: Elena Jimenez. Gaia: "Haur sexualitatearen bide laguna".

## Ate irekien egunak Lanbide Eskolan

Ikastetxearen instalazioetara bisita gidatua eta heziketa-proiektua azalduko dira saioetan: Maiatzak 6 eta 13, eguerdiko 11:00etan. Maiatzak 10 asteazkena, 18:00etan. Informazio gehiago: 943 364 600.

# noaua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaua.eus // www.noaua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

## Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

## Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

## Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

## Publizitatea:

Beatriz Alda,

publizitatea@noaua.eus

## Diseinu berria:

Erroitz S. L.

## Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

## Banaketa:

Jon Galbete, Ekhi

Arrieta.

## Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiete, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

### HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

#### Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Imanol Ubeda

## Kalabaza gogoangarri hura

**M**aiatzaren 7ko herri galdeketaz idazteko asmoa nuen. Baina Juanba Berasategi hil dela jakin dut eta zur eta lur geratu naiz.

Azkenekoz berarekin topo egin genuenean, presaka zebilen. Bi hitz egin genituen. Animoak eman zizkigun. “Banoa, zain ditut”. Zinemaldia garaia zen. Biharamuneko egunkarian ulertu genuen: sari bat hartzera zihoan. *Zinemira Saria* eman zioten orduko Zinemaldia hartan, bere ibilbide profesional osoarengatik esker ona adierazteko.

Orain, anekdota hura gogora ekarri eta sikiera egindako lana aitortu ondoren joan

dela ondorioztatu dut. Ondorio eskasa, inondik inora. Proiektuak zituen. Lan gehiago burutzeko nahia. Esperientzia. Jende gazteari laguntzeko gogo. Lastima.

Pena bakarra daukat. Ez niola ondorengo hau sekula adierazi. Oraindik gogoan dut *Kalabaza tripontzia* ikustera joan ginenekoa. Gu, tasa demografikoa gorenera igo zeneko belaunaldikoak, tropelean joan ginen Leidor zinema aretora. Ez dakit zenbat proiektio antolatuta behar izan zituzten. Ez baikinen sesio bakar batean denak sartzen. 12 urte edo izango genituen, eta irudi hori barruan daukat iltzatuta: Leidor aretoa gainezka, *Kalabaza tripontzia* noiz hasiko zain. Artean, ume

batzuk ginen, bistan denez. Geroago jabetu ginen zer nolako garrantzia izan zuen film hark. Ez soilik gure imaginarioan. Animazio arloan, euskaraz egin zen lehen film luzea izan baitzen.

Asmo hura burutzea ez zen lan samurra izango. Gaur zinemarako egitasmo bat aurrera ateratzea gauza konplikatu bada, pentsa nolakoak izango ziren gauzak 1985. urtean. Animaziozkoa izateak ere bere zailtasunak izango zituen. Teknologiarri esker, asko erraztu dira gauzak, asko merketu produkzioak. Baina hala ere, zailtasun ugari gainditu beharra daude. 80koetan baina, nola izango ziren gauzak? Atera kontuak.

Ilustratzailea ere bazen eta, urrutira joan gabe, Joseba Tapiaren disko batzuk berak diseinatu zituen: *Tximela kapitainaren izarrak* (2013) edota *Real politik* (2006). ‘Todoterreno’ bat zen. Bere belaunaldiko artista gehienak bezalaxe.

Baina tira, bizitza aurrera doa. Orain bizi gara. Eta hemen bizi gara. Ezin gara erretrobisoreari begira luzaz egon. Bernardo Atxagari entzun dizkiot hitzok. Beste testuinguru batean esan zituen baina balekoak iruditzen zaizkit: Juanba bidegileak urratutako bidetik beste artista gehiago datozelako. “Kimu” berriei lanak erraztea, ez zait omenaldi ederragorik bururatzen.

Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | Maialen Unanue | Garazi Lizaso Manterola | Luis Aranalde | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

### Eskertza-oharra

## Hartu atsedean, Xanti

**E**skerririk asko Xanti, eman diguzun guztiagatik: aragia, kemena, indarra, alaitasuna, poza...

Seme mundiala, senar hobe, munduko aitarik hobere, anaia zoragarria, osaba gisa “una maquina” zinen, izar bat. Lagun fidela eta lan-kide fina.

Hainbeste emateak nekea ekarri dizu eta atsedenerako toki lasaia aukeratu duzu, bakean zaude.

Hainbeste maite duzun aitarekin elkartu zara.



HARTU ATSEDEAN, XANTI.  
Zuk aukeratu duzun bidean lagunduko dizugu.

JOAN LASAI, XANTI.

Zauden lekuan zaudela ere,

zure indarra eta maitasuna sentituko ditugu.

Beti maiteko zaitugu, eta beti egongo zara gure bihotzetan.

LASTER ARTE, XANTI.

**“Zentzurik gabeko momentu batek ez dezala bizi guzti bat zentzu gabe utzi”**

Une gogor hauetan, Xanti Eizagirren familiak zuengan-dik jasotako maitasuna eta indarra eskertzen dizuegu. Egoeraren aurrean denengana iristea ezinezkoa egin zitzaigunez, jaso ezazue gure besarkadarik beroena bihotz-bihotzez, mila mila mila esker.

**Bere senideak**

\* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAlk ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: maiatzak 12. Idatzia ekartzeko azken eguna: maiatzak 8.

# Gipuzkoa Zutik, “erresistentzia fasean”

**E**rraustegiko lanak has-tear direla salatu du Gipuzkoa Zutik mugimenduak, sare sozialen bidez argitara eman duen adierazpen eta bideo baten bidez. Egoera honen aurrean, “erresistentzia fasea inauguratzen dugu” iragarri dute, eta “ez dugu erraustegi kriminal hau onartuko eta gure esku dagoen guztia egingo dugu gelditzeko”, gaineratu.

Erraustegia eraiki asmo duten gunean izan dira Gipuzkoa Zutik mugimenduko kideak. Hesola guztiak kendu eta 25 metroko pankarta erraldoia zintzilikatu dute. “Joan den udaberri beroaren ostean, Gipuzkoa Zutik mugimendua bizirik mantendu dugu herritar talde batek, eta bigarren udaberri baten atarian gaudela aldarrikatu nahi dugu”, adierazi



Sare sozialen bidez eman zuten ekintzaren berri: erraustegi-guneko hesola guztiak kendu dituzte. Pankarta handi bat ere zabaldu zuten bertan: “Erraustegirik ez, ez goaz etxera”.

dute.

## Sinadura bilketa

Lanak hasten dituztenerako, deialdiei adi egotera deitu dituzte herritarrak. “Herritarrok altxatzeko modukoa da gertatzen ari dena”, diote. Gipuzkoako Foru Aldundiari,

erraustegia eraikitzeo sinatua duen kontratua erakustea eskatzen diote. Bai mugimenduak berak, baita eskaera honekin change.org atarian bat egin duten ia 3.000 lagunek.

## Informazio gehiago:

Facebook: Gipuzkoa Zutik.

# Mobilizatzeko deia, erraustegiko lanak hastear diren honetan

**Z**ubietako erraustegia eraikitzeo lanak abiatzear dituzte. Honen aurrean, mobilizatza deitzen ditu herritarrak, Errausketaren Aurkako Usurbilgo Taldeak.

## Datozen deialdiak

### Maiatzak 8, astelehena

19:00 Erraustegiko eraikitzeo lanen hasiera dela eta, elkarretaratze zaratzatsua Mikel Laboa plazan. Ekarrri zarata sortuko duten gailuak; danborrak, txilibituak, kazolak...

### Maiatzak 10, asteazkena

Goiz partean (egunotan ze-



Maiatzaren 27an mobilizazio eguna antolatu dute Zubietan.

haztuko dute ordua), elkarretaratzea Bugatiko gasolindegiko ondoan, erraustegiko lanen lehen harria jartzekoa baita Foru Aldundia.

### Maiatzak 27, larunbata

Mobilizazio eguna Zubietan. Hitzaldiak, haurrentzako tailer

eta jolasak, musika...

Oharra: mobilizazio gehiago deitezotan da Errausketaren Aurkako Usurbilgo Taldea. Egunotan zehaztekoak dira deialdiak.

Antolatzailea: Errausketaren Aurkako Usurbilgo Taldea.

## Usurbilgo jaiei begirako bi deialdi

Usurbilgo Udalaren eta Jai Batzordearen deialdiotan ekarpenak egiteko maiatzaren 22ra arteko epea dago:

■ Txupinazorako hautagaiak proposatzeko aukera kultura@usurbil.eus helbidean edo Oiarde Kiroldegiko, Sutegi udal liburutegiko eta Potxoeneko kaxetan.

■ Egitarau diseinu lehiaketa: lana neurri librekoa, irakurtterraza, originala izan behar du. Nahi adina lan aurkez daitezke banaka edo taldean, euskarri digital eta paperean.

Aurkeztutako lanetan hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista bermatu behar da. Saria: 500 euro. Argibide gehiago eta egitaraua diseinatzeko testua eskuratzeko bideak: 943 371 999

kultura@usurbil.eus  
Potxoenean

## Adinekoentzako goitzari buruzko solasaldia Sutegin

Gai honetaz ariko dira bi arkitekto, Julen Etxeberria eta Aritz Berastegi, Aginagako Arrate, Santueneako Gure Elkartea eta Usurbilgo Gure Pakea Elkarrekin maiatzaren 5erako 18:30etan Sutegin antolatu duten ekitaldian. Gainera, adierazpen bat plazaratuko dute, gero Usurbilgo Udalean mozio gisa erregistratuko dutena, hurrengo osoko bilkuran aztertua eta bozkatua izan dadin.

## Arratekoen lan erakusketa

Aginagako Arrate Elkarteko kideen pintura eta eskulanen erakusketa antolatu dute Sutegiko aretoan, maiatzaren 11tik 14ra. Ordutegiotan bisitatu ahalko da:

■ Ostegun eta ostirala: 17:00-20:00.

■ Larunbat eta igandea: 09:00-13:00.

# Herritzartu: “Parte hartu,

**H**ilabeteetako lanketa borobiltzear da Herritzartu. Igandeko galdeketa begira, azken txanpan jada. Parte hartzera deitzen dute maiatzaren 7an. Iritzia edozein izanda ere, gure aho-tsa bozka bidez adieraztera. Hitzaz hartzeko hamaika arrazoi baitago.

**NOAUA! Antolaketa lanen azken txanpan egongo zarete honez gero.**

Hautesguneetako antolaketa bukatzea falta zaigu, bertan egon behar duten herritarrek egin beharreko lanen informazioa, hautesguneetako baliabideak antolatzea... Azken presaktaketa lanak. Lan gehientsuenak nahiko aurreratuak ditugu.

**Galdeketa egunerako laguntzaileak biltzeko egindako deialdiak zer nolako erantzuna izan du?**

Oso ona. Eguna bi txandatan antolatzea pentsatzen genuen eta hiru egingo ditugu azkenean. 80 herritar inguru egongo dira hautesleketan, 6 lagun segurtasun lanetan, Jarraipen Batzordeko 10 kide, Berme Batzordeko 3, Talde Sustatzaileko 15 lagun, kanpoko 3 begirale... Bozka eman ahal izateko 100 lagunetik gora. Ekitaldietan laguntzen, argazkiak ateratzen ibiliko direnak batu behar zaizkie. Horiek denak akreditazioa izango dutenak eta beste mordoxka bat, akreditaziorik gabe laguntzen egongo dena. Orain arte ere jende piloak hurbildu zaigu laguntza eskatu izan dugunean.

**Aldez aurreko bozka emateko epea zabaldu duzue. Herritarrek parte hartzen hasi dira?**

Mugimendua bada jada bozkatzen. Gainera, esan digute jendea hasi dela udaletxera joaten, errolda agiria behar ote



Galdeketa bezperan, Herritzartu elkartearen lanean ari diren kide batzuekin batu gara.

## HERRITZARTU

**“Kultura demokratikoan, parte hartze zuzenari begirako pausoak ematen dira halako ekintza eta ariketekin. Ekarpena oso handia da”**

duen galdezka. Bozka emateko baldintzak zorrotzasunez beteko ditugu. Euskal Herrian landutako protokolo bat bada, zorrotzasunez beteko dugu. Gauzak ondo egin nahi ditugu. Jendeak ere prozedura honekin sinestea nahi dugu.

**Galdeketa eguna aipatzen ari gara, baina aipatu izan duzue, bidea bera da garrantzitsua. Orain arte joraturiko bidea emankorra izan da?**

Egin dugunarekin jada bete dugu helburua neurri handi batean. Mugimendua egon da, jendea, galdera adosteko prozesu parte hartzaile jendetsua, kezka, kritikak... 200 bat bolondres izan ditugu lagun-

tzen. Horrek guztiak erakusten du bidea emankorra izan dela. Norbaitengana jo dugunean laguntza eske oso erantzun positiboa jaso dugu eta lagundu ezin izan duena penaz geratu da. Jendeak prestutasun handia erakutsi du.

**Erabakitze eskubidearen aldeko mugimendu honetan ahalduz bat eman da hilabeteotan?**

Kultura demokratikoan, parte hartze zuzenari begirako pausoak ematen dira halako ekintza eta ariketekin. Usurbilgo herriak aurreko udazkeneko bozketarekin eta oraingoarekin dinamika bat du martxan jarrita, ohitura bat. Ekarpena oso handia da. Batzuetan ez zaigu iruditzen baina hala da. Jendea konturatzen ari da, iritzia emateko ez dagoela goitik etorriko den ente baten zain egon beharrik. Galdeketa honekin eta aurrekoarekin ikusten ari gara herritarrok antolatzen bagara, iritzia emateko aukera sortzen dela. Eta honek eragina du gizartean. Lehenbiziko aldiz bozkatuko duten gazteentzat

eredu berritzailea da gainera.

**Euskal Herri mailan ospatzen ari diren galdeketa testu-guruan ere kokatu behar da.**

Garrantzitsua da Usurbilgo galdeketa, herri mailako ekimen batez gain, olatu bateko tanta bat bezala ulertzea. Azpimarratu nahi nuke galdeketa honek dituen 3 osagaiak. Batetik, errebindikazioa, hor egingo dugu bat gainerako herriekin, erabakitze eskubidearen defentsan. Eskubide hori onartua eta errespetatua izatea nahi dugu. Ariketa demokratikoa da, herritarrek parte hartze zuzenean hezten gara, gure iritzia modu libre eta lasaian ematea bermatzen joaten gara kulturalki. Elkarlanean herritarrok sortzen dugun lan bat da. Horren erakusle, zenbat jende parte hartzen ari den lan egingez, dirua emanez, babesa edo bozka emanez. Politika egituretan parte hartuko ez luketen askok, horrelako antolaketan parte hartzen du. Gainera, herritar eta herri bezala gure duintasunagatik eta horren defentsan egingen den ekintza bat da.

# aukera baliatu”

**NOAUA! Abiaturiko lanketa ez da igandean amaituko.**

Atzetik datorren prozesua da eta maiatzaren 7aren ondoren ere, ez azken hilabeteotako intentsitatearekin, baina jarraipena izango duena. Errealitatean bilakatu nahi dugun ibilbide luzeko aldarrikapena da honakoa. Maiatzaren 7aren ondoren etorriko dira beste ekintza batzuk. Ekainaren 10ean Bilbon Itun Herritarra aurkeztuko da. Galdeketa ostean horri bultzadaxoa ematen ahaleginduko gara.

**Loratzen doan mugimendu hau lagungarri suerta daiteke, etorkizunean galdeketa ofizialtasun osoz antolatzeko?**

Hainbeste lan egiten den prozesu batean, hainbeste jende mugitzen duena, 20.000-30.000 biztanleko herrietan ausartzen dena hau egitera... Esfortzu hori ezin da geratu



“Esfortzu hau ezin da geratu hor. Erantzun bat behar du”.

hor. Erantzun bat behar du.

**Erakundeek kontuan hartu beharrekoa bada.**

Gu oso serio ari gara lanean, eta erantzunak ere oso serioa izan behar du. Ezin da epelkeriatan ibili. Honi ezin zaio bestaldera begiratu, iraingarria litzateke.

Eta gainera ekintzarekin berekin eskatzen dugu hori, ahalegin handi bat egiten dugulan serioa egiteko eta politikoki erantzunkizuna dutenek erantzun serio bat eman behar dute. Katalunian egin zuten moduan, herritarren mandatu hori, erakundeetatik ere gauzatu behar da.

## “Galderari bai, ez edo zurian erantzun, baina parte hartu”

**NOAUA! Zergatik parte hartu behar dugu maiatzaren 7ko galdeketa?**

Hamaika arrazoi dago. Duintasunagatik, erreibindikazio bat delako, ariketa demokratiko bat. Politikarien esku bakarrik ezin dira halako gauzak utzi. Erabakitze eskubidearen alde dagoen edonork ikusi behar luke maiatzaren 7ko eguna egun garrantzitsu bat bezala, erakundeen aurrean bere iritzia azaltzeko. Gero galderari bai, ez, zurian erantzun, hiru erantzunak dira garrantzitsuak. Baina parte hartu. Barne pentsamendutik erabakitze eskubidearen alde bazaude, iritzi hori erakusteko maiatzaren 7ko egu-



“Politikarien esku bakarrik ezin dira halako gauzak utzi”.

na garrantzitsua da. Parte hartu, aukera baliatu.

**Galdeketa egunaren amaieran, zein da plazaratzea nahi zenuketen balorazioa?**

Adin tarte ezberdinetako parte

hartze zabala egotea, 3 erantzunek ordezkapen erreala izatea, eta baita ere nabarmentzea, asko egin dugula hilabeteotan eta asko egingo dugula, galdeketa indar bat dela aurrera segitzeko.

### Galdeketaarako jakin beharrekoak

- Orduategia: 09:00-20:00.
- Galdera: “Nahi al duzu Euskal Herria estatu independentea izatea?”.
- Bozka lekuak:
  - Kaxkoan: Kontseju zaharra kalea, etxe atarian.
  - Kalezarren: Haur Eskola eta Ugarte baserri ondoko merkataria parean.
  - Santuenean: Ibai Ondo elkarre ondoko plazan.
  - Aginagan: Apaiz-etxean.
- Tokia: Herritzarturen Etxebeste kaleko egoitza.
- Orduategiak:
  - Maiatzak 4, 18:00-20:00.
  - Maiatzak 5, 19:00-21:00.
  - Maiatzak 6, 11:00-14:00.

### Informazio gehiago:

usurbilgureeskudago@gmail.com  
634 445 512.  
Facebook: Gure Esku Dago  
Usurbil Twitter: @GureEskuDagoU  
Antolatzailea: Herritzartu  
Elkartea.

### Egitaraua

#### Kaxkoa:

- 09:00 Hauteslekuen irekiera. Txistularien kalejira.
- 10:00 Bizikleta martxa musikatu hauteslekuetara, Mikel Laboa plazatik abiatuta.
- 18:00-20:00 MartxanGO taldea.
- 20:00 Boto paperen zenbaketa.
- Ondoren, emaitzen aurkezpen publikoa eta Talde Sustatzailearen balorazioa.

#### Santuenea:

- 11:00 Haur jolasak.
- 12:00 Txorizo eta haragi egosi banaketa, musikaz giroturik.

#### Aginaga:

- 11:00 Haragi eta txorizo egosi banaketa, sagardoz lagunduta eta musikaz alaituta.
- Bitartean; haurrentzako txokoak eta toka txapelketa.

# Hauteslekuak, maiatzaren 7ko galdeketan

Kaxkoan



Kaxkoan, Mikel Laboa plaza ondoan.

Kalezarren



Kalezarren, Ugarte baserriaren eta Haur Eskolaren arteko markesinan.

Aginagan



Aginagan, Apaiz Etxean bertan.

Santuenean



Santuenean, Ibai-Ondo elkartearen aurreko plazatzxoan.

Zubietan



Zubietan, elizako arkupeetan.

## Bi Jarraipen Batzorde osatu dira, baina Berme Batzorde bakarra

### Usurbil eta Zubietarako

#### Berme Batzorde bakarra:

Partaideak: Olatz Altuna Zumeta, Lourdes Furundarena Etxeberria-Berrearza, Itsaso Gonzalez Ibirriaga.

### Zubietako Jarraipen

#### Batzordea.

Partaideak: Gabino Jauregi, Belen Zudaire, Maria Jesus Bengoetxea, Haritz Illarramendi.

### Usurbilgo Jarraipen

#### Batzordea:

Partaideak: Iñaki Mujika Aizpurua, Marisa Alejandro Gordaliza, Iñaki Zabaleta Imaz, Odei Guirado Irasuegi, Xabier Udabe Pagola, Mainer Makazaga Beristain, Eñaut Pagola Bereziartua, Andoni Larrañaga Oroz, Ana Esnaola Etxabe, Xabier Alustiza Bergara.






# MAIATZAK 7 HERRI GALDEKETA

Nahi al duzu Euskal Herria Estatu independentea izatea?

## BOZKATZEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA



## MAIATZAREN 7an EZ ZAUDE HEMEN? EMAN BOZKA AURRERATUA

HERRITZARTUK ETXEBESTE KALEAN DUEN LOKALEAN.

Maiatzak 3 Asteazkena	Maiatzak 4 Osteguna	Maiatzak 5 Ostirala	Maiatzak 6 Larunbata	Maiatzak 7 Igandea
11:00 - 13:00 18:00 - 20:00	18:00 - 20:00	19:00 - 21:00	11:00 - 14:00	09:00 - - 20:00



# Kolore anitzeko mugimendua



Pasa den larunbatean Erabaki Fest ospatu zen. Eguerdian, herritar ugari batu ziren Agerialdeko patioan. "M7 erabaki" mosaikoa osatu zuten.

## Noaua! App

Herriko berriak beti soinean

**Albisteak, agenda eta askoz gehiago Noaua! app berrian. Deskargatu doan eta jaso herriko azken berriak mugikorrean.**

Eskuratzeko:

[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)

# Zubietan, galdeketa propioa

Hitzordu erabakiorra maiatzaren 7koa zubietarrentzat. Donostiar edo usurbildar gisara ez, zubietar moduan eta hautesotsi bakarlean bozkatuko baitute maiatzaren 7an. Adierazi nahi duten iritzien gainetik, bozkatzera animatzen dute Zubiarlean Elkartetik, erabakitze eskubidea zubietarrena ere badela sentitu eta aldarrikapen nahiz festa giroko egun honetan murgiltzera.

**NOAUA! Azken prestaketa lanean izango zarete honez gero?** Hautetsontzia nondik ekarri behar duten, prezintoa zeinek sinatu, nora eraman behar den jakinazpena, komunikazio lana... Azken momentura arte egiteke direla jabetzen ez zaren halako lan txikiak geratzen zaizkigu. Atzera kontua hasita dago eta badira hainbat gauza ondo antolatu eta ardurak banatu beharra.

**Argi utzi beharreko kontua; bai Donostia zein Usurbil aldeko zubietarrek parte hartu ahalko dute igandeko galdeketa.**

Kontua da, gure nortasun agerietako zenbakietan batzuetan ez duela zehazten Zubietakoak garenik, batzuei Usurbil, Donostia edo kalea bakarrik adierazten die. Horretarako guk prestaketa dugu kale eta baserrien zerrenda bana, Zubietakoak direla egiaztatzen arazorik balego. Nortasun ageriak berak ez badu erakusten norbera Zubietakoa dela, errolda



Zubiarlean elkarrekin antolatu du igande honetako herri galdeketa.

## ZUBIARLEAN

**“Denok zubietartzat dugu geure burua. Zubietan galdeketa propioa egiteko arrazoietako bat hori izan da”**

agiria eramatea komenigarria litzateke badaezpada ere. Aurrez, dagokion udaletxean eskatu behar da. Hautes mahaiaren egongo diren pertsonak hiru gauza ziurtatu behar dituzte; bozkatzera doan pertsona eta agirikoa pertsona bera direla. Bigarrenik, adina, 16 urtetik gora izatea. Eta hirugarrena, bizilekua. Gure kasuan Zubietan erroldatua egon behar da; berdin du Donostia edo Usurbil aldean. Azpimarratu nahi genuke, gure kasuan guztiak garelako zubietarrek eta guztiok ere hautetsontzi bakarlean bozkatuko dugula.

**Hauteskundeetan modu berezian bozkatzetik, oraingoan, ontzi bakar batean bilduko dira zubietarren bozkek?**

Hauteskunde formaletan bi hautetsontzi egoten dira Zubietan, batean Usurbilen erroldatutakoek bozkatzeko, bestean Donostian erroldatutakoek bozkatzeko. Kasu honetan ez da hala izango. Guztiak izango dute elizako arkupeetan bozkatzeko aukera eta bozka guztiak hautesontzi bakarrera joango dira. Bereizketa hori ez egitea da helburua. Denok zubietartzat dugu geure burua. Zubietan galdeketa propioa egiteko arrazoia ere hori zen, guretik egingo dugula eta Zubietan subjektu erabakitzaile bezala aitortu nahi genuen. Zubietarren herri aitortza erreklatmatzen ibiltzen garenez, aldarrikapen hori benetan serioa egiteko egun bat izatea nahi dugu.

**Bozka paperetan ere islatu duzue aitortza hau.**

Usurbilen bezala, hemen ere zubietarrok adosturiko galdera izatea nahi genuen. Martxoan amaieran Kaxkapen, EHUko irakasle Mario Zubiagaren laguntzaz zubietarren herri izaera galderan bertan txertatu

behar genuela erabaki genuen, aitzin solas moduan. Bertan adierazten dugu, lehen aldian dela zubietar guztiok batera, zubietar moduan bozkatuko duguna eta prozesu honetan jarraitu eta sakontzeko gogoia eta asmoa adierazten dugu. Eta maiatzaren 7tik aurrera, pixkanaka gure herriaren etorkizuna nolakoa izango den erabakitze-ko pauso txiki batzuk ematea, batez ere herri izaera hori lantze aldera.

## Galdeketa eguna

- Maiatzak 7 igandea.
- Orduetgia: 09:00-20:00.
- Tokia: Zubietako elizako arkupea.
- Galderaren edukia: “Euskal Herri independente bateko herritarra izan nahi al duzu?”.
- Erantzun posibleak: Bai / Ez.

## Egitaraua

- 09:00 Txupinazoa eta hauteslekuaren irekiera.
- 11:00 Bizikleta martxa herria esnatuz!
- 12:00 Haurrentzako eskulanak eta jolasak.
- 12:30 Lehenengo parte hartze datuak.
- 14:00 Herri bazkaria. Txartelak salgai aurrez Alamandegin maiatzaren 1era arte: helduak 18 eurotan, haurrentzako menua 10 eurotan.
- 15:00 Parte hartze datuak. Ondoren, lore eskaintza amei.
- 16:30 Mus Txapelketa.
- 17:00 Parte hartze datu berriak.
- 17:00 Ttipika Dantza gidatuen emanaldia.
- 20:00 Hauteslekuaren itxiera.
- 20:30 Emaitzak eta Batzorde Sustatzailearen balorazioa.
- Oharra: txosna egongo da egun guztian zehar.
- Informazio gehiago: [zubiarlean@gmail.com](mailto:zubiarlean@gmail.com)  
Facebook: Zubiarlean  
663 584 130
- Antolatzailea: Zubiarlean.

## Herritar bakoitzak bere erabakia adierazteko aukera

**Zergatik izango da garrantzitsua zubietarrek hitza hartzea?** Bi arrazoi behintzat baditugu buruan; ez zubietar ezta euskal herritar moduan ere inoiz ez digutelako galdetu zein komunitateko kide izan nahi dugun. Herritar bakoitzak bere erabakia adierazteko fun-

tsezkoa izango da maiatzaren 7ko galdeketa.

**Amesten duzue espresuki zubietarren herri izaeraren inguruko galdeketa ospatuko den eguna?**

Bai noski. Iritsiko da une hori ere. Egia da, zaila izango dela

prozesua. Igeldoarrek bide luze eta zabala egin dute eta ikusten da zailtasunak ere badaudela. Zubietarrek ere gogo hori badutela uste dugu, maiatzaren 7an ere erakutsiko dela. Etorkizun batean galdeketa hori erreala izango dela uste dugu.

# “Goazen kalera”

**M**artxoaren 1etik, Udalak eta osasun sailak adineko jendea eta urritasun funtzionala duten herritarren osasuna eta jendarteko harremanak hobetzea duen proiektuan parte hartzen du Udarregi ikastolak.

Hasieratik proiektu interesgarria zela ikusi genuen, pertsonetikiko harremanak, elkartzasuna eta errespetua garatzeko aukera paregabea ikusten baikeuen.

Gainera, ekimenak gure hezkuntza proiektuan gizarte mailan ikasleekin landu nahi diren helburuekin guztiz bat egiten du. Honetaz gain, belaunaldien arteko harremana sustatzeko eta elkarrekin bizitzen kompetentzia garatzeko aukera paregabea ikusi dugu.

**DBH 3. mailako ikasleak.**



“Goazen kalera” ekimenean hartzen dute parte DBH 3. mailako ikasleek.

## “Bukaeran hamaiketako goxoa hartzen dugu denok”

Aurten, DBH3ko ikasleekin parte hartzeko konpromisoa hartu dugu hilean behin.

Egun horretan gure ikasleak kontrolean egoten dira, parte-hartzaileen izenak apuntatu eta zigiluak jartzen dituzte. Beste batzuk berriz, ibilbidean zehar, solasaldian, behar duenari laguntza eskaintzen, errepidean paso ematen joaten dira. Bukaeran hamaiketako goxoa hartzen dugu denok.



Ikasleak kontrolean egoten dira, parte-hartzaileen izenak apuntatu eta zigiluak jartzen dituzte.

## ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

2 etxebizitza gelditzen dira!

AZKEN 2  
ETXEBIZITZAK!

12 ETXEBIZITZA  
INGURUNE PAREGABEAN  
Agerreazpi<sup>n</sup>

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1<sup>o</sup> Behea  
20009 Donostia

E.:contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



# OSASUN GIDA 2017



**Irati Ibargoien**  
FISIOTERAPIA ETA OSASUN ZENTROA  
**943 53 92 66**  
Puntapax 68. behea ezk. - USURBIL

**Jada zabalik!**

**Irati Ibargoien**

FISIOTERAPIA - OSASUNA  
PILATES TERAPEUTIKOA

PILATES TERAPEUTIKO PERTSONALIZATUA  
Errehabilitazioa - Kirol fisioterapia  
Fisioterapia traumatologikoa - Terapia funtzionala  
Fisioterapia neurologikoa - Osteopatia



**USURBIL**  
**OPTIKA**

Bigarren lente pareta doan: lente progresiboetan, irakurtzeko lenteetan eta ikus-urruneko lenteetan

Zubiaurrenea. 10 • ☎ 943 370 269 • 675 708 654

2. lente pareta doan  
**2x1**  
PROGRESIBOETAN  
IRAKURTZEKOETAN  
IKUS-URRUNEKOETAN



**Öinutsik**  
p o d o l o g i a z e n t r o a

943 11 09 54 zubiaurrenea 2, Usurbil



**Öinutsik**  
943 11 09 54

- Azterketa biomekanikoak • Plantilak
- Papiromak • Erreflexoterapia
- Kolagenozko infiltrazioa • Kiropodiak



**Iturraldebotika**  
Tomas Iturralde botika  
33/17 PEZ

Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua  
Dermofarmazia  
Produktu homeopatiakoak  
Maisu formulak

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95



**Lizarralde**  
**ORTOPEDIA**

- ✓ OSAKIDETZAREKIN HITZARMENA
- ✓ Produktu ortopedikoen alokairu zerbitzua (oheak, aulkiak, garabiak...)
- ✓ Arreta pertsonal eta espezializatua

☑ Teknikari ortopeda kontsulta    👤 Aholkularitza    📦 Produktu gama zabala

Kazkazuri 1 baxua, Oñartzun - 943 543 585 / 688 678 583  
[www.lizarraldeortopedia.eus](http://www.lizarraldeortopedia.eus)

**LOGOPEDIA**  
Haurrak / Nerabeak / Helduak  
TERAPIA MIOFUNZIONALA



- Amasketa arazoak, disglosia, degluzioa
- Ahotsaren tratamenduak: disfemiak, disfonia funtzionala simple eta konplexua...
- Hizkuntza eta ulermenaren zailtasunak: dislexia, disortografia, diskalkulia, TDA-H, disartriak...

Aurreko hitzordua: 635 701 374





**Klik! batean**

## Zumeta estudioa

Jose Luis eta Usoa duela bost bat urte hasi ziren hemen lanean. Txikierdiko estudio honetan, erakusketa leku bat zabaldu berri dute. Aste honetan egin dute aurkezpen ekitaldia. Hilaren bukaerara bitarte, Jose Luisek azken urteotan estudioan bertan egindako margoak egongo dira ikusgai.

Argazkia: Ion Markel

# Ziortzako kanpaldira joateko tokirik bada oraindik

Ziortzako kanpaldira joateko plaza batzuk libre daude oraindik. Izena emateko epea ostiral honetan amaituko da.

Lehen deialdian, urtean zehar izena eman dutenekin beteko dira plaza gehienak, ondorioz hauek dira libre geratu direnak:

- 2. Txanda (DBH 3-4), 31 plaza.
- 3. Txanda (LH 5-6), 7 plaza.

## Plaza kopurua gaindituko balitz, zozketa

Izen emate orriak liburutegian eta parroko atean topatuko dituzue. Interesa dutenek, maiatzaren 5era arteko epea izango dute. 19:00etan itxiko da izena emateko epea. "Ordu horretan izena eman dutenekin plaza kopuru hori gainditu ezkerro hauekin egingo genuke



Argazkian, iaz Ziortzako kanpaldia muntatzen aritu zen taldea.

zozketa". Aurtengoan hiru txanda antolatuko dituzte. Epeak ere finkatu dituzte jada:

- 1. Txanda (DBH 1-2): uztailaren 3tik 12ra.
- 2. Txanda (DBH 3-4): uztailaren 12tik 21era.
- 3. Txanda (LH 5-6): uztailaren 21etik 28ra.

## Informazio gehiago:

ziortzage@gmail.com  
Twitter: @ziortzage  
Facebook: Ziortza Gazte Elkarte.

## Begirale ikastaroa

Usurbilgo Udalak, herriko kirol taldeekin elkarlanean aisialdi begirale ikastaroa antolatu du datorren udarako. Urtxintxa begirale eskolak bideratuko du ikastaroa. Izen emateko epea zabalik egongo da maiatzaren 19ra arte, Oiar-do Kiroldegian. Plaza kopurua mugatua izango da. Argibide gehiago Kiroldegian bertan edo 943 372 498 telefono zenbakian.

# Maliren aldeko elkartasun kanpaina amaieran, ikuskizuna Potxoenean

Maliko haurrei eskola materiala bidaltzeko elkartasun kanpaina betean dira Ziortza Gazte Elkartekoak. Maiatzaren 6ra arte, Artzabalena, Sutegi udal liburutegian eta Oiar-do Kiroldegian jarri dituzten kaxetan utzi dezakegu ikasteko behar den oinarriko materiala. Larunbat honetan frontoi inguruan borobilduko dute bilketa eta Potxoenean antzezlan eskainiko dute:

## Maiatzak 6, larunbata

■ 11:30-12:30 Maliko haurrei helarazteko eskola materialaren bilketa frontoi inguruan. Arkatzak, boligrafoak, koadernoak, borragomak, erregelak, errotilagailuak, plastidekorrak... Es-



Arkatzak, boligrafoak, koadernoak, borragomak, erregelak, errotilagailuak, plastidekorrak... batu eta Malira bidaliko dituzte.

kola materiala baino ez.

■ 12:30 Ziortzako gazteen antzerkia Potxoenean.

Ikuskizunerako sarrera: ez da diruz ordaindu behar, eskola materialarekin baizik.

## Udajolasen izena emateko epea, amaitzear

■ Izen emateko epea: maiatzaren 2tik 5era eta maiatzaren 8an.

■ Orduetgia:

10:00-11:00/16:00-18:00.

■ Tokia: NOAUA! Kultur Elkartearen egoitza (Bordaberri kalea 3).

■ Kuota: 83 euro. Familia ugariak 67 euro (Familia Ugariaren Txartela edo Familia Liburuaren kopia ekarri behar da).

■ Aurkeztu beharrekoa:

-Izen emate orria beteta.

-Ordainketa-agiria. Ordainketa Laboral Kutxako kontu zenbaki honetan egin eta haurraren izen-abizenak adierazi! 3035 0140 34 1400025811

-Gizarte segurantzako txartelaren kopia.

■ Nori zuzendua: Usurbilen erroldatutako 4-12 urte arteko (HH3-LH6) haur eta gaztetxoei.

■ Udajolaseko epea: uztailaren 3-28 (asteleheneretik ostiralerara), 09:30-13:30 artean.

■ Gehienezko plaza kopurua: 200.

■ Oharrak:

-Behin izena emanda, ez da dirurik itzuliko.

-Udajolaseko guraso bilerara, ekainaren 8an osteguna 17:00etan Sutegin.

■ Antolatzaileak: NOAUA! eta Usurbilgo Udala.

## Udako Txokoak

### Aginagan

Aginagako udako txokoetan izen emateko epea maiatzaren 2tik 15era luzatuko da.

■ Txokoen iraupena, ekainaren 26tik uztailaren 28ra.

■ Izena-emateko bi aukera: iraupen osoa edota asteak solte.

■ Informazio gehiago:

aginaga@eskolatxikiaki.org

■ Antolatzailea: San Praixku guraso elkarte.



# URDAIRA

## Sagardotegia

astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



## OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

### 943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



# LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarriletik maiatzak 7ra  
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa  
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baseria Ereñotzu - Hernani

Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867



Iruin Sagardotegia

Etorri eta dastatu sagardo berriak

30 Urte baino gehiago Usurbildarrei  
sagardo hobereak eskeintzen.

Iruin, beti zugandik gertu.

943.361.229

Petritza bidea 12, Zubieta

# ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81



Kalezar 39, USURBIL sidreria@sidrassaizar.com www.sidrassaizar.com

943 37 39 95

## aginaga

### SAGARDOTEGIA

Hotela \*\*

URTE OSOAN  
ETXEKO SAGARDOA  
TXOTXETIK!

ORAIN, BERTAN LOTAN  
GELDITZEKO AUKERA!  
ASTELEHENETAN ITXITA



### 943 36 67 10

Aginaga, USURBIL www.aginagasagardotegia.com

Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!

%100 bertako sagarra

### Tel: 943 365 031

Santuenea



## Itzal zaunka, liburutik oholtza gainera

Antton Olariagak istorio motz bat kontatu nahi zuen, “eta zakur bat hartu nuen protagonista”. 50 marrazki egin zituen eta Harkaitz Canoren esku utzi zituen. Horixe izan zen *Itzal zaunka* lan kolektiboaren abiapuntua. Irudiz, hitzez eta doinu osatzen den disko-liburuan oinarrituta, Jexuxmai Lopetegik eta Noizbehinka taldeak zuzeneko saio bat ondu dute. Larunbat honetan, Sutegin izango dira.

Nola eraman disko-liburu bat zuzenekoetara? Jexuxmai Lopetegi eta bere taldeak ikusentzunezkoetara jo dute. Hala, taldeak zuzenean jotzen duen bitartean, Iban del Campok eginiko bideo klipak eskainiko



Larunbat honetan Jexuxmai eta Noizbehinka taldeak zuzenean jotzen duen bitartean, Suteginiko pantailan bideoak proiektatuko dituzte.

dituzte Sutegiko pantailan. Ez dira denak bideo klipak izango. Bideo batzuetan, Antton Olariaga eta Lorena Martin ikusiko ditugu lanean; margotzen alegia.

**Maiatzak 6, larunbata, 22:00**

■ 8 euro aldeztatik Lizardin. Egun berean, Sutegin, 10 euro.

■ Antolatzailea: Jexux Artze Kultur Elkarteak.



### Lan multidiziplinarra

Elkarrek iaz plazaratu zuen *Itzal zaunka* izeneko disko-liburua. Ander Gillenearen argazkian ageri dira lan multidiziplinar honen egileak: Antton Olariaga, Jexuxmai Lopetegi eta Harkaitz Cano.

### Antton Olariaga omenduko dute Sutegin

Larunbat honetan, maiatzak 6, Sutegin ikus ahal izango dugu *Itzal zaunka* ikuskizuna. Antton Olariaga omenduko dutela iragarri du Jexux Artze Kultur Elkarteak.

## “Esku harriak, Oteizaren (h)aria” larunbatean Mikel Laboa plazan

MugMus Laborategiaren ibilbidea 2015 urtearen hasieran abiatu zen eta Beñat Ralla Yusta izan zen sustatzaile nagusia. “Esku Harriak: Oteizaren (h)aria” ikuskizuna MugMus Laborategiak plazaratzen duen lehen lana da.

Dantza mugimenduen, musikaren, eskulturaren, hitzaren, hotsen, espazioaren trataeraren... harilkatze fin baten bitartez, Oteizaren mundu ikuskeran murgiltzen joango gara: harrespila (cromlech-a), hutsunea, espazioaren trataera mamiatsu eta moldagarria, desokupazioa, eskultura, “Laboratorio de Tizas” delako bilduma, bertsolaritza, txalaparta...

MugMus-en ekimen honetan hain zuzen, bertsolari batek hartzen du parte. Larunbat honetako saioan, Uxue Alberdi



Larunbat honetan, 19:30etik aurrera, Mikel Laboa plazan.

arituko da kantuan. Ikuskitzuzunaren aurretik, txalapartariak izango dira protagonistak. Txalamandra bikoteak eta Alazne Begiristain eta Eli Eizagirrek joko dute Mikel Laboa plazan.

**Maiatzak 6, larunbata, 19:30**

■ Mikel Laboa plazan.

■ Txalamandra txalaparta bikotea, Alazne Begiristain eta Eli Eizagirre txalapartariak.

■ MugMus Laborategia taldearen “Euskal harriak, Oteizaren (h)aria”.

■ Sarrera: doan.

■ Antolatzailea: Jexux Artze Kultur Elkarteak.

## Maiatzaren 20an, “Jainko basatia” antzezlan



Sarrerak Lizardin eskuratu daitezke aldeztatik, 8 eurotan.

Bi aste barru amaituko dira Jexux Artzeren omenezko kultur ekitaldiak. Txalo taldearen *Jainko basatia* antzeztanarekin itxiko da zikloa.

**Maiatzak 20 larunbata, 22:00**

■ 8 euro aldeztatik Lizardin. Egun berean, Sutegin, 10 euro.

■ Aitziber Garmendia, Mikel Losada, Andoni Agirregomezkorta, Tessa Andonegi.

■ Antolatzailea: Jexux Artze Kultur Elkarteak.

# Gure Elkartea

Santueneako zaharren egoitza

Maiatzak 12, ostirala:  
**1. URTEURREN FESTA!!**

19:00tik aurrera, **PINTXO-POTE GIROTUA!**

*Gonbidatuta zaudete  
gure pintxo aukera zabala dastatu eta  
ondo pasatzera!*



Santuenea Auzoa 11, Usurbil - 686 55 41 45



*Zorionak  
amatxo!*

**URTINEA**

*Jantzi kolorez zure etxe,  
balkoi zein lorategia!*

Eta amaren egunean...  
era guztietako aukerak oparitzeko!

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

*Baiezkoa esatea baino  
gauza ederragorik!*

2017KO MAIATZAREN 7AN  
HERRI GALDEKETAN

**ehbildu**  
USURBIL

**BAINO**



# 5. SAGASTIAK LORETAN OSPAKIZUNA '17

## SAGARRONDOEN LORALDIAREN GORAZARRE EKIMENA USURBILEN

### APIRILAK 8

Larunbata • 11:30  
Pilotalekuan, SEAS-  
KAREN sagarrondoak  
eskuratzeo egitas-  
moa

Ibilaldia Sagastien Paisaia  
ezagutzera, ikasleak:  
SEASKA-UDARREGI eta  
nahi duen guztia. Jakoba  
Errekondoren eskutik.

### APIRILAK 22

Larunbata • 09:00  
Potxoenea Kultur  
Etxean, "Sagarron-  
dotik Sagardora"  
ikastaroa

Ilargia eta Egutegi  
Biodinamikoa, Xabier  
Aklzuren eskutik.

### MAIATZAK 7

Igandea • 11:00  
Bertso-Ibilaldia  
Loratutako Sagastie-  
tan + Bertso bazka-  
ria

Zubietako Iruin Sagardo-  
tegitik abiatuta, Sagard-  
oaren Paisaia Kulturala  
ezagutzera. **Maialen  
Lujanbio** eta **Andoni  
Egaña** ibilbidean zehar  
bertsotan eta bazkarian  
azkena. Paisaiaren argibi-  
deak Jakoba Errekonda-  
ren eskutik.  
Ondoren Bertso bazkaria  
Zubietako Iruin Sagardo-  
tegian (ereserbak egiteko  
deitu Iruina 943 36 12 29  
edo Noaualra 943 36 03 21).

### MAIATZAK 9

Asteartea  
"Seed Journey"  
jardunaldia, Donos-  
tiako Tabakalera  
eraikinean

10:00: Artea eta landa  
ingurunea: mugaldeak  
miatzen elkarre hauen  
eskutik: **Future Farmers,  
Flatbread Society, Campo  
Adentro, Kanpoko Bulegoa,  
Baseriko Arte Sarea.**

18:00: Hitzaldia: "Sagar-  
doa: nekazaritza kultura  
ozeanoetan zehar".  
**Marc Badal:** Sortze-  
ko bekatutik industria para-  
diura, gozogarriak lubrika-  
tzaille historiko.

**Amy Franceschini:** "Seed  
Journey" egitasmoaren  
aurkezpena.

**Jakoba Errekondo:** Sagar-  
doaren Paisaia Kulturala.

### MAIATZAK 10

Asteazkena  
"Seed Journey"  
jardunaldia

10:00: Hendaiako Abba-  
dia Jauregiko bilduma  
sagastira bisita (09:00  
Amarako EuskoTren gelfo-  
kian, 10:00etan Domaine  
d'Abbadieren sarreran.

14:00: Bazkaria upel  
artean. Hernaniko Iparra-  
gire Sagardotegian.  
Bertako erakusketara eta  
sagastietara bisita.

17:00: Cristina Enean  
talde hormairudia: Amy  
Franceschini eta beste  
artista batzuen laguntzaz  
Hazeraren egoitzan  
hormairudia margotzea.

### MAIATZAK 15

Astelehena • SAN IXIDRO EGUNA  
Baserritarren eguneko ospakizuna

10:15 Trikitilariak kaxkoan zehar

10:30 Meza Salbatore elizan

11:15 Hamaitetako herrikoia frontoian

11:45 Herri kirolak Dema plazan

13:15 Bertso saioa Ane Labaka eta Iñaki Muruarekin

14:00 Bertso-Bazkaria Artzabal Baserran

(Ikarleak saioa Alkartasun eta Artzabalen maiatzak 13 arte. Prezioa: 31€)

### MAIATZAK 17

Asteazkena • 18:00  
"Seed Journey"  
jardunaldia, Donos-  
tiako Cristina  
Eneako eraikinean

Hitzaldia: "Teosinte, kutsa-  
dura genetiko eta  
bizitzaren kolonizazioa".  
Rosa Binimelis eta Ignacio  
Chapela.

### MAIATZAK 20

Larunbata • 09:00  
Potxoenea Kultur  
Etxean, "Sagarron-  
dotik Sagardora"  
ikastaroa

• Garbitasuna kalitatearen  
lagun

• Sagardoa egurrezko  
ontzietan

• Sagarrondoaren  
bizimodua

Zaplain Sagardotegiko  
Egoitz Zapiainen eta  
Jakoba Errekondoren  
eskutik.

### MAIATZAK 21

Igandea  
XXXVI. SAGARDO  
EGUNA

12:00: Goiko Plazako  
oholtzan Euskal Herriko 1.  
EGURREZKO SAGARDOEN  
TXAPELKETA.

### EKAINAK 3

Larunbata • 09:00  
Potxoenea Kultur  
Etxean, "Sagarron-  
dotik Sagardora"  
ikastaroa

• Sagastien udako  
kimaketa

• Gaitzak eta Izurriteak  
Aitor Etxeandaren  
eskutik.

### EKAINAK 6

Asteartea • 19:00  
"Euskal Sagardoa"  
Jatorrizko Izendapen  
berriko sagardoaren  
aurkezpena eta  
ZUMETA margolaria-  
ren erakusketaren  
irekiera. Zumeta  
Arte Estudioan.

Aurkezpenak, sagardo  
dastaketa eta mokadu-  
txoa. Unai Agirre, Izendape-  
neko teknikariaren eskutik.  
Jose Luis Zumelaren lanen  
erakusketak ikusgai izango  
da.

**OHARRA:** kotxez etengo da  
bertaratu. Autobus zerbitzua  
izango da Kaskatik.

# Azken ostiral hunkigarria, Mari Karmen Anzaren itzulerak eraginda

**A**laba Olatz Lasagabaster eta Xua biloba sortu berria ezagutzeko 600 kilometroko bidaia egin behar izan zuen Usurbildik Valentziaraino urtarrilean. Han gaizki sentitu eta ospitaleratu behar izan zuten; ZIU-n hilabetez, gero plantan. Handik Donostiako ospitalera ekarri zuten martxoan hasieran eta hilabete bukaeran etxeratu ahal izan zuten. Osasun egoera hobetuta itzuli ahal izan zuten aurreko apirilaren 28an, Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituriko hileroko elkarretaratzerara.

Olatzen ama Mari Karmen Anzak usurbildarren harrera beroa jaso zuen, euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko apirilaren 28ko mobilizazioan. "Hiru hilabete luze- ren ondoren, gure artean dugu berriro Mari Karmen. Eta esan nahi diogu, ongi etorri gure artera berriro!", adierazi zieten Usurbilen Nahi Ditugu bilgune- tik elkarretaratzerara bertaraturikoen izenean eta Mikel Laboa plazan bildutako txalo artean Anzari.

## Lore sorta jaso zuen

Hunkituta, lore sorta eder bat jaso zuen Mari Karmenek, eta Usurbilgo herriari eskerrak eman zizkion, hilabeteotan jasotako elkartasun eta berotasunagatik. Jasotako babes



Mari Karmen Anzak hunkituta jaso zuen lore-sorta.

## ESKER ONEZ

**Usurbilgo herriari eskerrak eman zizkion, hilabeteotan jasotako elkartasun eta berotasunagatik. Jasotako babes eskertzeko pintxo batzuk prestatu eta dastatzeko aukera eskaini zien bertaraturikoei**

eskertzeko pintxo batzuk prestatu eta dastatzeko aukera eskaini zien bertaraturikoei.

Mobilizazioak bigarren protagonista bat ere izan zuten. Mari Karmenen alaba; Olatz Lasagabaster. Urteak betetzear dituen honetan, Picassentera helaraziko zaion zorion agurrerako argazkia atera zuten, Mikel Laboa plazara gerturaturiko herritarrek.

## Datozen mobilizazioak

### Maiatzak 6, larunbata:

17:30 Larriki gaixo dauden euskal presoen etxeratzea exijitzeko manifestazioa Gasteizko Iparralde gizarte-etxetik abiatuta. Autobus zerbitzua Usurbildik, 15:15ean Bordatxoko errotondatik. Izen ematea: Aitzagan eta Txiribogan (10 euro). Deitzailea: Sare.

### Maiatzak 21, igandea:

Mobilizazioa Sagardo Egunean. Deitzailea: Usurbilen Nahi Ditugu.

### Maiatzak 26, ostirala:

20:00 Azken ostiraleko elkarretaratzea Mikel Laboa plazan. Deitzailea: Usurbilen Nahi Ditugu.

## Larriki gaixorik dauden presoak askatzeko eskaera

Gai honen inguruko erakunde adierazpena onartu zuen aho batez Usurbilgo Udalak, apirilaren 25ean egin zuten osoko ohiko bilkuran. Bi puntuko testuan, batetik, Oier Gomez eta larriki gaixo dauden euskal presoak aske uzteko indarrean den legedia aintzakotzat hartzea eskatzen zien eskumena duten frantziar agintariei. Udaltzako erabateko adostasunez hartutako erabakia agintarioi helaraziko zaie.

## Oier Gomezen kasua

Larriki gaixo dagoen Oier Gomez euskal preso gasteiztarra urte hasieratik Ewing sarkomarekin Parisko Pite-Salpetriere ospitalean egon da, aurreko astean kartzelaldia eten eta bere aurkako euroaginduak bertan behera utzi zizkieten arte. Ordutik aske da, jada Euskal Herrian. Usurbilen Nahi Ditugu bilgune- tik, azken elkarretaratzean, gaixo diren 12 euskal presoen kaleratzea eskatu zuten, euskal presoak euskal herriratzea galdegitearekin batera. "Ezin da Oier Gomezi gertatu zaiona berriro errepikatzen utzi", nabarmendu zuten.

**Artzi**  
Patriotasuna  
Jatetxea

bazkariak EGUNERO  
afariak, asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 • © 688 690 361

Jose  
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

ZALDIGAIN

ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com  
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867  
Fax: 943300045

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

# Azken Bizi Kalea, dendariekin

Herritarren artean harrera ezinhobeia izan duen Hurbilago Elkar-teen Bizi Kalea ekimenaren estreinako denboraldia amaitzear da. Denetarikoa osagaiak izan dituen gune gastronomiko eta ibiltariaren azken hitzordua, iganderako, maiatzaren 7rako finkatu dute antolatzaileek, Askatasuna plazan. Hurbilagoko kide diren tabernarien elkarlana erdigunean jarri ohi duen azokak, jan edana edota musika dakar, aurreko edizioen antzera.

Baina baita osagai berriak ere. Bizi Kalearen edizio bakoitza bakarra eta ezberdina izan ohi da, eta bidean datorrena ere ez da salbuespena izango. Hurbilago Elkarteko tabernariei dendariak batuko zaizkie oraingoan. Ondoko irudian dituzuen saltokietako langileek dendako eskaintza Askatasuna plazara aterako dute maiatzaren 7an. Bertarantzen denak erosketak egin ahal izango ditu; adi, %10 merkeago, Usurbilgo txanpona baliatzen baduzue.

## 150 euroko erosketa txartela

Azokan eskuragarri izango diren produktuak kontsumitzearen truke txartelak jasoko dira. "Ondo gorde!", ohartarazi dute antolatzaileek. Hainbat opari zozketatuko baitira, 150 euroko erosketa-txartelarekin batera azoka amaieran.

## Argazkien erakusketa

Berrikuntza gehiago. Pasa den udazkenean antolatu zuten Hurbilagoren "Usurbilgo Txokoak" Argazki Lehiaketara aurkeztu ziren lanak ere ikusgai jarriko dituzte maiatzaren 7an, Askatasuna plazan. Biharamunetik aurrera, Sutegiko aretoan jarriko dituzte erakusgai.

## Buruhandiak eta Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria



Igande honetan, Bizi Kalea festa Askatasuna plazan.

## BIZI KALEA

**"Erosketak egitearen truke, Hurbilago Elkarteko establezimenduetan xahutzeko 150 euroko erosketa-txartelaren zozketan parte hartu ahal izango duzue"**

Txikientzako eskaintza ere ez da faltako; batetik, Txirinbolo dendaren eskutik, tailerrak izango dira. Usurbilgo Erraldoi eta Buruhandien Konpartsak berriz, buruhandiak aterako ditu plazara. Ixabel Agirresarobek ipuin kontalari gisa jardungo du.

## Bizi Kalea

■ Eguna: maiatzak 7, igandea.

■ Orduetgia: 11:00-15:00.

■ Tokia: Askatasuna plaza.

-Jan edana: sardinak parrilan eta krocketak.

-Musika.

-Haurrentzako: buruhandiak,

tailerrak eta 13:00ean, Ixabel Agirresarobe ipuinak kontatzen.

■ Hurbilagoren "Usurbilgo Txokoak" Argazki Lehiaketako irudiak ikusgai (Bizi Kalearen ostean, Sutegin jarriko dituzte erakusgai).

■ Hurbilago Elkarteko hainbat dendariren postuak: arropa, jostailuak, liburuak, lurrinak, kosmetika produktuak, janari prestatuak, ile-apaindegiko produktuak.

■ Usurbilgo txanpona baliatuta, erosketak %10 merkeago egiteko aukera.

■ Zozketak: 150 euroko erosketa txartelaren zozketa eta opari ederren zozketa azoka amaieran!

■ Antolatzailea: Hurbilago Elkartea.

## Ken Zazpirako sarrerak

Gogoan izan, Hurbilago Elkar-teen antolatuta, maiatzaren 13an gauerdian Dema plazan eskainiko duten kontzerturako sarrerak aurrez erosi ditezkeela 12 eurotan, Bordatxo, Txirristra, Aitzaga eta Txiriboga tabernetan. Egunean bertan, 15 eurotan aipatu taberna hauetan eta Sutegin.



## Odolaren Mintzoa, Gaztearen Maketa Lehiaketa irabaztear

Empty Files talde bilbotarrak irabazi du Gaztearen 26. Maketa Lehiaketa. Talde usurbildarra ere izan zitekeen irabazlea halere, ekimeneko epaimahaia- ren esanetan, txapelduna hau-

tatzen lan zaila izan baitzuten. "Betiko lez, oholtza izerdiz blai utzi genuen! Laster izango duzue gure berri!", adierazi du Odolaren Mintzoa taldeak, sare sozialen bidez.

# Euskadiko txapelkunorde



Bigarren postuan amaitu dute Euskadiko Txapelketa eta horri esker Espainiako Txapelketarako sailkatu dira.

Euskadiko Txapelketan bigarren postuan sailkatu da asteburuan, Usurbil Kirol Elkarteko kadete mutilen taldea. Zarauzko Aritzatalde Kiroldegian jokaturako fasea txapelkunorde

direla amaitzeaz gain, maiatzeko hirugarren asteburuan, oraindik zehazteke dagoen lekuan ospatuko den Espainiako Txapelketarako ere sailkatu dira kadete mutilak. Zorionak!

## Sailkapena

- 1-Zarautz.
- 2-Usurbil K.E.
- 3-Urduliz.
- 4-Bidasoa Irun

# Andatzakoekin Herri Urratsera

Maiatzaren 10era arte zabalik jarraituko du izen emateko epeak.

## Bi egunekoak:

- Egunak: maiatzak 13-14.
- Abiatzeko hitzordua: 08:30ean Oiardo Kiroldegitik autobusez.
- Ibilbidea: maiatzaren 13an Ereñozu-Lesaka (6,5 ordu) eta maiatzaren 14an Lesaka-Senpere (6,5 ordu). Gaua, Lesakako Matxinbeltzenea ostatuan (du-txa, loa eta gosaria. Afarria aparte ordainduko da).
- Oharrak: motxilan bi eguneko otordua, toaila eta aldatzeko arropa eraman behar da.

Prezioa: 30 euro.

## Egun batekoa:

- Eguna: maiatzak 14.
  - Abiatzeko hitzordua: 08:30ean Oiardo Kiroldegitik autobusez Lizuniagaraino. Bezperatik irteeran direnekin elkartuko dira. Nahi duenak Senpereraino autobusez joan daiteke (Senperera autobusez joateko ez dago federatua egon beharrik).
  - Ibilbidea: Lizuniaga-Senpere (3,5 ordu).
- Prezioa: 10 euro.

## Izen ematea:

ordainketak maiatzaren 10a baino lehen egin, kontu zenbakio-tako batean:

Rural Kutxa: 3008025916300543 0321.  
Kutxabank: 2095506907106848 9805.

## Oharrak:

- Plaza mugatuak.
- Itzulerako autobusa, maiatzaren 14an 18:30etan Senperen.
- Ezinbestekoa izango da mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean izatea.

## Informazio gehiago:

andatz.com  
andatz@hotmail.com

## Eskubaloit partidak

### Maiatzak 5 ostirala

■ 20:00 Kadete mutilak, Gipuzkoako Kopa (atzeratutako neurketa): Usurbil K.E.-Urkunde Elgoibar

### Maiatzak 6 larunbata

- 09:15 Alebin mutilak, Buruntzaldea: Udarregi 5A-Urnieta 5B
- 09:15 Alebin mutilak, Buruntzaldea: Udarregi 6A-Urnieta 6B
- 10:30 Infantil neskek, Gipuzkoako Txapelketa (3. eta 4. postuak): Urnieta Altuna Autobusak-Leizaran Eskubaloia A
- 12:00 Infantil neskek, Gipuzkoako Txapelketako finala: Kalari Taberna Pulpo K.E.-Bera Bera Urdina
- 13:30 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi B Usurbil-Ereintza Todo Terreno
- 17:00 Kadete neskek, Gipuzkoako Kopa: Usurbil K.E.-Trapaia Taberna Pulpo K.E.
- 19:00 Senior mutilak, 1.nazionala: Ucin Aluminio Usurbil-Alcorta Forging Group Elgoibar

### Maiatzak 7 igandea

- 11:00 Alebin mutilak, Gipuzkoako Errendimenduzko Txapelketa: Usurbil K.E.-Aloña Mendi K.E.
- 12:00 Alebin neskek, Gipuzkoako Errendimenduzko Txapelketa: Usurbil K.E.-Ereintza Eskubaloia

## Futbola

### Haranen

#### Maiatzak 6 larunbata

- 09:30-10:30 Ikastolako topaketa: LH3.
- 10:30-11:30 Ikastolako topaketa: LH4.
- 12:00 Kadete mutilak: Usurbil F.T.-Ostadar S.K.T. "B"
- 16:00 Jubenil mutilak: Usurbil F.T.-Amara Berri K.E. "A"

#### Maiatzak 7 igandea

- 09:00 Alebin federatua: Usurbil F.T.-Orioko F.T.
- 09:00 Alebin federatua: Zumaiako F.T.-Lengokoak K.E.

**Inaki Iturgintza**  
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK  
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com  
**600 024 825**

**ARRANDEGIA PELLO**  
PUNTAPAX 7  
943 36 21 64  
USURBIL

**BORDATXO**  
taberna  
**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

**URDAINTZI**  
eraikuntzak  
649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
eraikuntzak-obrak-erreformak

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Gure Borda salgai: 2.000 m<sup>2</sup>, borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m<sup>2</sup> pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m<sup>2</sup> (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. 395.000 euro. 679002101

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, sukalde, egongela, komuna eta trastelekua. Tel. 664 689 597.

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperroburu 8an. 3 logela, sukalde, egongela eta 2 bainugela. 25 m<sup>2</sup> trastelekua. 626 347 914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trastelekua. 135 m<sup>2</sup>. 637 22 88 60

Pisu bat salgai. 90 m<sup>2</sup>. 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukalde, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642.

BOE-ko 79m<sup>2</sup> etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukalde... Dena kanpoaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trastelekua. 629631838

2 gela, komuna, sukalde eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukalde. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Pisua salgai Urdaian. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m<sup>2</sup>. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. 90.000 euro. 646344847

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdik 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean. Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukalde egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

## Alokairuan

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415

Pisua alokatzen da Kaxkoan: igogailua, bi gela, egongela, komuna eta sukaldearekin. Orientazio ona eta eguzkitsua. 690 817 903

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Pisu bat Santuenean. 2 logela, sukalde, egongela, komuna eta sukalde. Animaliak ez dira onartzen. 667 680 236.

Logela baten bila nabil, sukalde erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negoio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsua batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil.

Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariek eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

## MOTORRA

## Salmenta,

## garajeak

120 metro<sup>2</sup> lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

Garaje itxi bat alokatzen da Zubiaurren 10ean. 620024663

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian, Usurbilgo sarreran. 657795378

Garaje marra bat salgai Munalur-

rran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxe karnetarekin gidatu daitezke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 ziilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Galtzaragainako garaje marra salgai. 20.000 euro. 687348223

Garaje itxia salgai, 38 m karra-tukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m<sup>2</sup>, Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Erreka-txiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan. 671547567

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Zerbitzari bat behar da kafetegi batean lan egiteko. Asteazken zehar egun bat eta asteburutan. Bidali kurrikulum-a posta kutxa 16 zenbakira 20170.

Arrandegirako langilea behar dut. Euskara jakitea ezinbestekoa. 628 063 871.

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Hetik aurrera aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera

altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelehenetik ostiralera. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edozein modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketan lan egiteko. Irterna moduan, orduka edo gaez. 677 624 965

Neska farmazialaria seguitan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketan, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro<sup>2</sup>. 699 306 158

Neska arduratsua eskaintzen da garbiketa egiteko orduka edo goizetan. 629 110 310

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Haurrak zainduko nituzke orduka: 619 355 819

Geriatria laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldearen ezagutzia). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxeetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.



Etoko txikiak, jada bost urte bete ditu.

**Zorionak Eneko!!**



**Zorionak Ani!!**  
Zure urtebetetze eguna izan zen!!  
Lau muxu goxo zuretzat mattia!



**Zorionak Martina!!**  
Maiatzaren 7an, begiak ireki eta eguzki handi bat gure barruan: Martinak 8 urte!  
Maitte-maitte zaittugu!  
Mama, amatxo eta Pau.

## Heriotzak

**Xanti Eizagirre Zaldúa**  
49 urterekin hil zen, apirilaren 25ean



Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

# USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170  
USURBIL

# ELORZA

OBRAKETA  
ERREFORMAK S.L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com



Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etzeko lanak egiten edo garbiketari, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldari lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketari lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen edo etxeko garbitzen. Tel. 632 587 450.

Etzeko lanak egiten, eta helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Paperak egunean. Interna moduan ere bai. 667 281 660

Paperak eguneratuak dituen gazte, geriatrari laguntzaile tituluduna, tabernak garbitzen eta sukaldari laguntzaile gisa aritutakoa, orduka edo interno moduan garbiketari lanetarako edo helduak zaintzeko prest. 669 679 186

Emakumea eskaintzen da arratsaldeetan hiruzpalau orduz etzeko lanetan aritu edo adinekoak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta paperekin, orduka lan baten bila: plantxa lanetarako, haur eta adinekoen zaintza, garbiketari lanak, tabernan arraskan aritzeko... 688 642 835/ 697 887 581.

Etzeko zerbitzuan, helduak edo umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Usurbilgoa naiz eta erreferentziak ditut. 658703636 Lupe

Auxiliar laguntzaile tituluduna, helduak zaintzeko eta etzeko zerbitzurako prest, baita garbiketari lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketari, jabetxe batean harraskan aritzeko edo pertsona helduak zaintzen. Paperak egunean. Tel. 667 983 617.

Mutil gazte euskalduna DBHko ikasleei klase partikularrik emateko eskaintzen da. Ingeniaritza kimikoan graduatua, ingeles maila altua. 695 726 499. Jon

Lan bila nabil, orduka edo umeak zaintzen. 645 530 490.

Lan bila nabil, interna moduan edo orduka. 631 108 012.

Berandu baino lehen ekin! Irati eta Ane bakarkako partikularrik, arreta hizkuntzen sakontzea eta beste zenbait lanketa eskaintzen ditugu. Pedagogia eta beste hainbat ikasketa. Deitu edo bidali mezua: 617 684 523 / 680 160 278.

Emakume euskalduna eskaintzen da, astean bi edo hiru egunetan garbiketari lanak egiteko, goizez edo arratsalde, irailtik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567

18 urteko nerabea eskaintzen da uda garaian baratzako lanak egiteko. Tel. 616 260 451.

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka edo ospitalean egoteko. Tel. 676 188 411.

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 618 756 934

Neska arduratsua lan bila dabil

pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 631 224 621

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketari lanetan. 642 704 992.

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen eta garbiketari lanetan. Paperekin eta esperientziarekin. Tel. 617 888 854.

Etxeak eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Tel. 606 661 048.

Etxeak, bulegoak eta portalak garbitzeko edo pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Tel. 673 256 566.

Etxez etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material guztiarekin eta txakur ileapaintzaile tituluarrekin. 666 798 804.

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna moduan ere bai. Paperekin eta

erreferentziarekin. Tel. 667 281 660.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 631 108 012

#### BESTELAKOAK

Informatikako klaseak hartuko nituzke. Tel. 691 961 669.

Betaurreko batzuk agertu dira, graduatuak eta funda beltz batean. Atxegaldeko erdiko kalean. Zureak badira, deitu: 943 37 13 48

Artzabal inguruan ume txano grisa galdu dugu; ponpoiduna eta belarriak tapatzekoak dituen. Norbaitek aurkituko balu, eskertuko genuke udaltzaingoa entregatzea.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enkortadora salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Piano edo teklatu bat erosiko nuke. 675 00 70 48 Garbiñe.

Litera bat salgai, metalikoa, grisa eta 2 X 0,90 metroko neurriekin, salgai. Tel. 646 305 658.

Kotzeko ume aulki bat salgai, 2-3 urteko grupokoa. Arroxa. 646 305 658.

Katakumeak oparitzen ditut. Baserrian ohituak. Tel. 610 375 595.

Txokoalden, San Esteban gora aldera igotzen, Mugi txartel bat aurkitu da. Izena: Jose Maria Otaegui Mugica. Udaltzainetan dago, eta pasa handik bila.

Puntuzko txaketa beige bat galdu zen uztailaren amaieran, ambulategi erdigune inguruan. NOAUA!ra ekarri mesedez.

Abuztuan Usurbilgo Udaltzain-gora haurtzeko botika eta higenerako produktuz betetako laranja koloreko nezeser edo botikin bat entregatu dute. Galdu duenak Udaltzaingoa galde dezala.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikoko egokia) 627355126.

Maiatzaren 26an, 17:00ak aldera Oiardo Kiroldegian Golf gris auto bati kolpe txiki bat eman nion. Ohar bat utzi nion. Zurea bada jarri nirekin kontaktuan; 635 71 35 97.

Katuak oparitzen ditugu Donostikat elkartean. 633 273 747 / 605 730 115

Nort Face markako eta urdin turkesa koloreko haur forro polar bat galdu da. Aurkitu baduzu deitu 678 084 020.

Mobilhome bat alokatzen dugu Landetan uztaileko bigarren hamabostaldian, uztailaren 17tik 31ra. Aste bakarrerako edo hamabostaldirako alokatzeko aukera. 660 057 667

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburukak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala .....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 04** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Ostirala 05** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Larunbata 06** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Igandea 07** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Astelehena 08** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Asteartea 09** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Asteazkena 10** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

## Maiatzak 4 - maiatzak 14

**Osteguna 11** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Ostirala 12** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Larunbata 13** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Igandea 14** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

\* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE  
Elkano 9 Behea, Hernani  
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda maiatza

## 05 ostirala

- "Erresidentzia orain" ekitaldia 18:30ean Sutegin.
- Txokoaldeko Txalaparta Txokoaren aurkezpena 18:30ean tren geltoki ohian.

## 06 larunbata

- Ate irekien eguna Lanbide Eskolan 11:00etan.
- 11:30ean Maliko haurrentzako materialaren bilketa frontoian. 12:30ean Antzerkia Potxoenean. Antolatzailea: Ziortza.
- "Esku harriak" ikuskizuna 19:30ean Mikel La-boa plazan. "Itzal zaunka" 22:00etan Sutegin.

## 07 igandea

- Ziga-Erratzu mendi irteera 7:30an kiroldegitik (aurrez eman behar zen izena).
- Herri galdeketak Usurbilen eta Zubietan.
- Bertso-ibilaldia 11:00etan Iruin sagardotegitik abiatuta. Bertso-bazkaria Iruinen.
- Bizi Kalea 11:00-15:00 Askatasuna plazan.

## Bertso-ibilaldia, sagastien lurraldean barrena

Sagastiak loretan direla ospatzeko, ekitaldi ugari antolatu dira datozen egunetarako. Igande honetan, inguruko paisaia hobeto ezagutzeko aukera paregabea izango dugu. Jakoba Errekondok ezohiko ibilaldi bat gidatuko du. Ezohikoa, Maialen Lujanbiok eta Andoni Egañak kantuan egingo dutelako bidea.

■ 11:00 Sagardoaren Paisaia Kulturala ezagutzeko Zubietako Iruin Sagardotegitik abiatuta. Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña bertsoan arituko dira ibilbidean zehar. Paisaiaren inguruko argibideak Jakoba Errekondok eskainiko ditu.

■ Iruindik abiatu eta Iruinen amaituko da ibilbidea. Bertan bazkalduko dute, eta bazkarian ere kantuan arituko dira Lujanbio



Maialen Lujanbiok eta Andoni Egañak abestuko dute ibilaldian zehar. Ondoren, Iruinen egingo den bazkarian ere arituko dira kantuan.

eta Egaña. Aldez aurretik izena eman behar da: Iruin Sagardotegira (943 361 229) edota NOAUA!ra (943 360 321) deituz.

## Txokoaldeko Geltokiaren aurkezpena

Oreka Tx taldeak kudeatuko du Txokoaldeko tren geltoki ohia. Ostiral honetan zabalduko dituzte ateak. 18:30ean egitasmoaren berri emango dute eta 19:00etan entsegu irekia egingo dute.

## Datorren astelehenean, odol-ematea

Maiatzaren 1eko jai eguna tarteko, maiatzaren 8rako finkatu du Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak bi hilean behin deitzen duen odola emateko hitzordua. 18:00-20:30 artean anbulatorioan.

### Datozenak

#### Arrate Egoitzako ikasleen lanen erakusketa Sutegin

- Aginagako Arrate Elkarteko kideen pintura eta eskulanen erakusketa.
- Epea: maiatzak 11-14.
- Orduetgia:
  - Ostegun eta ostirala: 17:00-20:00.
  - Larunbat eta igandea: 09:00-13:00.
- Tokia: Sutegiko erakustaretoa.

#### San Ixidro eguna

Sagastiak Loretan ekimenaren baitan jaso dira San Ixidro eguneko ospakizunak. Bazkaria Artzabalen izango da baina txartelak aldeztu aurretik eskuratu behar dira.

- 10:15 Trikitilariak Kaxkoan zehar.
- 10:30 Meza Salbatore elizan.
- 11:15 Hamaiketako herrikoia frontoian.
- 11:45 Herri kirolak Dema plazan.
- 13:15 Bertso saioa Ane Labaka eta Iñaki Muruarekin.
- 14:00 Bertso-Bazkaria Artzabal Baserrian. (Txartelak salgai Alkartasunan eta Artzabalen maiatzaren 13ra bitarte. Prezioa: 31 euro).
- Antolatzaileak: Alkartasuna Baserri-tarren Kooperatiba.
- Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

**ETXETRESNEN KONPONKETAK**  
azkar, prezio onean MARKA GUZTIAK  
20 URTEKO ESPERIENTZIA  
645417665  
XABIER  
Usurbil

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra  
693 059 392  
uraitz@uraitz.com USURBIL

**txirriStra**  
TABERNA  
-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak  
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

# hurbilag



## AZOKA

Maiatzak 7, igandea

11:00etatik 15:00etara

Askatasuna Plazan

Bizi

kalea



### HURBILAGOko DENDARIEN POSTUAK

arropa, jostailuak, liburuak,  
lurrinak, kosmetika produktuak,  
janari prestatuak, ile-apaindegiko  
produktuak...

Produktu guztietan  
%10eko beherapena  
Usurbil txanpona erabilita  
eta 150 euroko erosketa  
balearen zozketa.

### "USURBILGO TXOKOAK"

argazki erakusketa

### BURUHAUNDIAK ETA HAURRENTZAKO TAILERRAK

(Txirinbolo)

13:00 IXABEL AGIRRESAROBEN  
IPUINAK KONTATZEN

### MOKADUAK:

Sardinak parrilan eta krocketak

### MUSIKA

Antolatzailea

hurbilag

Usurbilgo Merkataritza eta Oribanaren Eskola

Babesteak



Usurbilgo Udala



GOBIERNO VASCO  
Euzko Jaurlaritzaren Gobernua  
DEPARTAMENTO DE OLABAKO LA  
ECONOMIA Y COMPETITIVIDAD

Azoka bukaeran opari ederrak  
zozkatuko dira, gorde tiketak!



# MAIATZAK 7 HERRI GALDEKETA

Nahi al duzu Euskal Herria Estatu  
independentea izatea?

BAI     EZ     ZURI

**PARTE HARTU ETA  
BOZKATU!**

herritarron garaia da

